

BERARIAZKO SARBIDE-PROBA

Zaldiketa Goi-mailako zikloa

Ikasketa-emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta proba erlazionatua

1. Lurrean egonik ikuskatu du GPko 1,35 m-ko proba baten mailako jauzi-ibilbide bat. Trazadura ezagutu eta bere ezaugarriak aztertu ditu, bai eta oztopo bakoitzarenak ere. Ikuskapen hori oinarri, erabaki teknikoak hartuko ditu zaldiz ibili bitartean.

- a. Banan-banan antzeman ditu oztopo bakoitzaren ezaugarriak eta zailtasun teknikoak.
- b. Ibilbidearen diseinua aztertzean, oztopoen eta, oro har, trazaduraren zailtasun teknikoak hartu ditu kontuan, bai eta proposatutako zaldien ezaugarriak ere.
- c. Oztopo bakoitzaren zailtasunak eta oztopo bakoitzak gainerakoekin duen lotura oinarri, zaldiz ibili bitartean hartu beharreko erabaki teknikoak aipatu ditu.
- d. Konbinazioa osatzen duten oztopoen arteko distantziak eta bide baldintzatuak ezagutu ditu.
- e. Oztopoen arteko distantzia eta zenbait zaldiren ezaugarriak aintzat hartuta, kasu bakoitzerako hautatutako urrats luzeen kopurua arrazoitu du.

PROBA ERLAZIONATUA: JAUZI-IBILBIDEA AZTERTZEKO PROBA, ZALDIZ IBILI AURRETIK

Jauzi-ibilbidea lurrean egonda ikuskatu eta aztertu ostean, hautagaiak ibilbidearen gaineko iritzi teknikoa emango du, eta azterketa-epaimahaiak gai hauei buruz egingo dituen galderari erantzungo die: ibilbidearen diseinua, eta bai ibilbidearekin berarekin bai epaimahaiak proposatutako zaldien ezaugarriekin loturiko balizko erabaki tekniko eta taktikoak.

2. Hautagaiak zaldiz egin du GPko 1,35 m-ko proba bateko jauzi-ibilbide bat. Ekipamendu eta jantzi egokiak erabili ditu, eta, galopan, segurtasunez eta eraginkortasunez gauzatu ditu jauzi-ariketak, probaren mailari dagokion trebetasun teknikoa erakutsita.

- a. Jauziei buruzko araudiaren arabera aukeratu ditu ekipamendua eta jantziak.
- b. Segurtasunez eta trazadura zuzenetik gidatu du zaldia, erritmoz, kadentziaz, galopa egokian, bultzadaz, orekaz eta arteztasunez. Oztopo guztiak gainditu ditu.
- c. Bulkada-puntu egokiaz heldu die oztopoei, orekari primeran eutsiz, zaldiari egokiro lagunduz eta teknika zuzen baliatuz.
- d. Lurra ondo hartu du. Zaldia zuzen orekatu du, eta berriz hartu ditu galopa-erritmo eta bultzada egokiak.

PROBA ERLAZIONATUA: JAUZI-PROBA PRAKTIKOA, ZALDI GAINEAN

- Zaldizkoa eta zaldia ekipamendu egokia eta berariazko jantziak dituztela agertu.
- Indarrean dagoen jauzi-diziplinako araudiari jarraiki, GPko 1,35 m-ko jauzi-proba egin, galopan eta, gutxi gorabehera, 350 metro minutuko abiaduran. Era berean, probak zenbait motatako 10 oztopo izango ditu, tartean konbinazio bikoitz eta hirukoitz bana eta, gutxienez, bide baldintzatu bat.

3. Heziera klasikoko araudiaren arabera, hautagaiak maila nahiko aurreratuko (Ertaina I) reprise bat aztertu du, probaren zailtasun teknikoak ezagututa, eta beharrezko taktikak eta portaera teknikoak zehaztuta.

- a. Epaimahaiak proposatutakoen repriseen artean, Ertaina I maila teknikoari dagokiona ezagutu du.
- b. Maila nahiko aurreratuko reprisea osatzen duten irudi guztien zailtasun teknikoak aztertu ditu.

- c. Repriseko irudi bakoitzaren zailtasun teknikoa eta irudi bakoitzak gainerakoekin duen lotura kontuan hartuta, zaldiz ibiltzeko balia daitezkeen teknikak aipatu ditu.
- d. Reprisearen zailtasun teknikoak, zenbait zaldiren ezaugarriak eta gerta litezkeen arazoak abiapuntu, zaldizkoaren jokabide tekniko-taktikoa zein izan beharko litzatekeen adierazi du.

PROBA ERLAZIONATUA: REPRISEA BALORATZEKO PROBA PRAKTIKOA, ZALDIZ IBILI AURRETIK

□ Hautagaiak eskatutako mailari dagokion reprisea aukeratu beharko du ezer zehaztu gabe aurkeztuko zaizkionen artean. Horrez gain, reprisearen gaineko iritzi teknikoa emango du, eta azterketa-epaimahaiak gai hauei buruz egingo dituen galderari erantzungo die: reprisearen ezaugarri teknikoak, eta bai reprisearekin berarekin bai epaimahaiak proposatutako zaldien ezaugarriekin loturiko balizko erabaki tekniko eta taktikoak.

4. Hautagaia zaldiz ibili da, pistan, ekipamendu eta jantzi egokiak erabilia, eta heziera klasikoko maila nahiko aurreratuarekin lotutako ariketak egin ditu, hiru aireetan. Hori guztia segurtasunez eta eraginkortasunez gauzatzea lortu du, maila horrek eskatzen duen trebetasun teknikoa erakutsita, eta maila aurreratuari dagozkion berezko ariketei aurre egiteko teknika nahikoa baliatuta.

- a. Heziera klasikoko araudiaren araberrako ekipamendua eta jantziak hautatu ditu.
- b. Nahiko aurreratua (Ertaina I) mailako repriseko irudi guztiak gainditzeko trebetasun eta teknika nahikoa erakutsi du.
- c. Maila aurreratuko (Ertaina II) berezko ariketak egiteko trebetasun eta teknika nahikoa erakutsi du.

PROBA ERLAZIONATUA: HEZIERA KLASIKOKO PROBA PRAKTIKOA, ZALDI GAINEAN

Zaldizkoa eta zaldia ekipamendu egokia eta berariazko jantziak dituztela azaldu.

Heziera klasikoko indarreko araudiaren arabera, maila nahiko aurreratuko (Ertaina I) proba bat egin, 60 x 20 metroko pista batean, eta maila aurreratuari (Ertaina II) dagozkion berezko ariketak egiteko teknika nahikoa erakutsi.

5. Hautagaiak lurrian egonik ikuskatu du Zaldiketako Lehiaketa Osoa (ZLO) 2*-ko proba baten mailako landan zeharreko (kros) ibilbide bat. Trazadura ezagutu eta bere ezaugarriak aztertu ditu, bai eta oztopo bakoitzarenak ere. Ikuskapen hori oinarri, erabaki teknikoak hartuko ditu zaldiz ibili bitartean.

a. Banan-banan aztertuta, oztopo bakoitzaren eta bere aukeren ezaugarriak eta zailtasun teknikoak ezagutu ditu.

b. Ibilbideko oztopo bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuta, bulkada-puntua, airea eta helmuga-abiadura zein izan behar diren aipatu du.

c. Oztopoen eta, oro har, trazaduraren zailtasun teknikoak nahiz proposatutako zaldien ezaugarriak hartu ditu kontuan ibilbidearen diseinua aztertzeko.

d. Oztopo bakoitzaren zailtasunak, oztopo bakoitzak gainerakoekin duen lotura eta proposatutako zaldien ezaugarriak oinarri, zaldiz ibili bitartean hartu beharreko erabaki teknikoak aipatu ditu.

e. Konbinazioa osatzen duten oztopoak, beren arteko distantzia eta kasu bakoitzeko aukerak ezagutu ditu.

PROBA ERLAZIONATUA: LANDAN ZEHARREKO (KROS) IBILBIDEA BALORATZEKO PROBA, ZALDIZ IBILI AURRETIK

Landan zeharreko (kros) ibilbidea lurrian egonik ikuskatu eta aztertu ondoren, hautagaiak ibilbidearen gaineko iritzi teknikoa emango du, eta epaimahaiak gai hauei buruz egingo dituen galderari erantzun die: ibilbidearen diseinua, eta bai ibilbidearekin berarekin bai epaimahaiak proposatutako zaldien ezaugarriekin loturiko balizko erabaki tekniko eta taktikoak.

6. Hautagaiak zaldiz egin du ZLO 2* proba baten mailari dagokion landan zeharreko (kros) ibilbide bat. Ekipamendu eta jantzi egokiak erabilia, jauzi-ariketak gauzatu ditu, aire egokia baliatuta, eta segurtasuna, eraginkortasuna eta probaren mailari dagokion trebetasun teknikoa erakutsita.

a. ZLOri buruzko araudiaren arabera ekipamendu eta jantzi proposak hautatu ditu.

b. Trebetasun eta teknika nahikoa erakutsi du, eta segurtasunez eutsi dio landa-galopari, 550 metro minutuko abiaduran. Oztopo guztiak gainditu ditu.

c. Oztopoari heltzean, bulkada-leku eta puntu zuzenetatik egin du, orekari primeran eutsiz, zaldiari egokiro lagunduz eta teknika zuzen baliatuz.

d. Lurra ondo hartu du, trebetasun eta teknika nahikoa erakutsita. Zaldia zuzen orekatu du, eta berriz hartu ditu erritmo eta bultzada egokiak.

PROBA ERLAZIONATUA: LANDAN ZEHARREKO (KROS) PROBA PRAKTIKOA, ZALDI GAINEAN

- Zaldizkoa eta zaldia ekipamendu egokia eta berariazko jantziak dituztela agertu dira.
- ZLO diziplinaren indarreko araudiaren arabera, bi izarreko ZLOko iraupen-proba bat egin. Probak 3.000 metro eta 10 oztopo izango ditu.

BERARIAZKO BETEKIZUNAK EGIAZTATZEKO PROBAREN ANTOLAKETA:

1. PROBA PRAKTIKOA:

Hautagaiak proba praktikorako hiru aukeretako bat (jauzia, heziera klasikoa edo landan zehar) hautatu eta egin behar du. Halaber, hiru balorazio-probak egin behar ditu (jauzi-ibilbidea, reprisea eta landan zeharreko ibilbidea).

1. AHOZKO PROBA (NAHITAEZKOA):

1.1 JAUZI-IBILDEA BALORATZEKO PROBA.

1.2 REPRISEA BALORATZEKO PROBA.

1.3 LANDAN ZEHARREKO (KROS) IBILBIDEA BALORATZEKO PROBA.

2. PROBA PRAKTIKOA (HIRU AUKERETAKO BAT):

2.1. aukera. JAUZI-PROBA PRAKTIKOA, ZALDI GAINEAN

(Diziplina hori proba nagusi gisa aukeratzen duen hautagaiarentzat).

2.2. aukera. HEZIERA KLASIKOKO PROBA PRAKTIKOA, ZALDI GAINEAN

(Diziplina hori proba nagusi gisa aukeratzen duen hautagaiarentzat).

2.3. aukera. IRAUPEN-PROBA PRAKTIKOA, ZALDI GAINEAN

(Diziplina hori proba nagusi gisa aukeratzen duen hautagaiarentzat).

BERARIAZKO PROBA EGITEKO OINARRIZKO BALDINTZAK: GUNEAK ETA EKIPAMENDUAK.

Guneak:

- 40-60 m² bitarteko ikasgela.
- Heziera-pista. Gutxienez, 60 x 20 metroko neurriak izan behar ditu.
- Gutxienez 4.000 m²-ko jauzi-pista.
- 3.000 m inguruko kros-ibilbidea egiteko landa-eremu garbia, oztopo finkoekin.

- Beroketa egiteko tokia, hiru diziplinetarako.

Ekipamenduak:

- Zaldi bat, gutxienez, bi hautagaiko, egunero; animaliak probak egiteko gaitasuna izan behar du.
- Heziera-pistarako hizki identifikagarriak.
- Espezialitateetarako ekipamendu osoak.
- Pistarako oztopo-sorta, 5 bertikal eta 5 sakon eta boleak muntatu ahal izateko.
- Oztopoen ordena adierazteko zenbaki-sorta. Bandera gorriak eta zuriak oztopoetarako.
- Gutxienez, 10 oztopo kroserako. Horietatik, gutxienez 6 finkoak izango dira. Oztopoen ordena adierazteko zenbaki-sorta. Bandera gorriak eta zuriak oztopoetarako.